



**IRAKASGAIAREN GIDA
NAHITAEZKO KANPO
PRAKTIKAK
PSIKOLOGIAKO GRADUA**

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. ARAUTEGIA	3
2. PSIKOLOGIA GRADUKO NAHITAEZKO KANPO PRAKTIKAK	3
2.1 EZAUGARRIAK ETA HELBURUAK	3
2.2 PRAKTIKA-ALDIA ETA IRAUPENA	3
2.3 NON?.....	4
2.4 LAN-EZAUGARRIRIK GABE	4
2.5 PRAKTIKAK EGITEKO EREMUAK.....	5
2.6 IKASLEAK ZENTRU BERRI BATEN BILAKETA EGITEN DUENEAN (ESLEIPEN ZUZENA)	5
2.7 PRACTICUMAREN SARRERA-IRAKASGAIK.....	6
2.8 ASEGURUA	6
3. PLAZEN KUDEAKETA ETA ESLEIPENA	7
4. PRAKTIKEN GARAPENA ETA EBALUAZIOA: TUTORETZA, IKASLEAK GAUZATU BEHARREKO TXOSTENAK ETA MEMORIAK ETA KALIFIKAZIOA	7
4.1 TUTORETZA	7
4.2 TXOSTENAK ETA MEMORIAK.....	8
4.3 PRAKTIKEN EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA	8
5. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	9
5.1 PRAKTIKAK EGITEN ARI DIREN IKASLEAK	9
5.2 PRAKTIKETAKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEKO INSTRUKTOREA	11
5.3 UNIBERTSITATEKO TUTOREA.....	13
6. GAUR PLATAFORMA	14
7. WEB ORRIAN ERABILGARRI DAUDEN DOKUMENTU ETA FORMULARIOAK	14
8. HARREMANETARAKO DATUAK ETA INFORMAZIOA	14
8.1 EGIAZTAPEN-ZERRENDA / BARNE-TUTOREAK	15
8.2 EGIAZTAPEN-ZERRENDA / ERAKUNDE LAGUNTZAILEETAKO INSTRUKTOREAK	16

1. Arautegia

UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoak, hain zuzen, 2019ko uztailaren 12ko Gobernu Kontseiluak onartutako eta [2019ko abuztuaren 6eko EHAA](#)n argitaratutako araudiaren arabera daude araututa.

2. Psikologia Graduko nahitaezko kanpo praktikak

2.1 Ezaugarriak eta helburuak

Kanpoko praktikak UPV/EHUko Psikologiako Graduko 4. mailako nahitaezko irakasgaia dira (12 ECTS).

Praktiken helburua, hain zuzen, ikaslearen prestakuntza teorikoa osatzea da. Horretarako, ikasleak barneratutako ezagutzak eta gaitasunak egonkortu eta praktikan jarriko ditu, Psikologiaren jardunbide-eremu bateren bat sakon aztertuko du eta lanbidean behar bezala jarduteko beharrezko praktika-gaitasunak eskuratuko ditu; azken batean, etorkizunean ikasleari lan-munduan txertatzeko bidea erraztuko zaio.

Kanpoko praktikek ez dute halabeharrez eskatzen psikologiaren lanbide-jardunaren ezein arlotan espezializaziorik izatea. Prestakuntza akademikoaren baitako beste irakasgai bat baino ez da, ikasleari lan-munduarekin aurrenekoz harremanetan jartzen lagunduko diona.

Baldintzak: Irakasgaien matrikulatuta egotea eta gutxienez 150 kreditu gaindituta izatea.

2.2 Praktika-aldia eta iraupena

Oro har, Graduko kanpoko praktikak ikasturteko bigarren lauhilekoan egiten dira (otsaila eta ekaina artean). Alabaina, ikasleak eska dezake lehenengo lauhilekoan egitea ere (iraila eta urtarrila artean). Kasu batzuetan, eskainitako plazak ez datoz bat lauhileko batekin; horregatik, garrantzitsua izaten da, aukeratu aurretik, ikasleak ondo erreparatzea **Kanpoko curriculum-praktiken plazen katalogoan** jasotako baldintza guztiei.

Nahiz eta ikasleak matrikula egiteko baldintza guztiak bete, praktika-aldia bat badator bere eskola-garaiarekin, bi jarduerak modu egokian bateratzeko modua baduela egiaztatu beharko du. Fakultateak ez ditu bere bizkar hartuko ikasleek egindako matrikula-aukeren ondorioz sortutako teilakatzeko-arazoak.

Kanpoko Praktiak irakasgaiak 12 ECTS ditu esleituta. Esan nahi baita, aurrez aurreko 200 ordu eta ikasgelaz kanpoko 100 ordu. Aurrez aurreko orduen artean dago txertatuta, hain zuzen, praktiketako zentroan egindako egonaldia. Ikasgelaz kanpoko orduetan daude txertatuta, bestalde, praktiken hasiera prestatzeko baliatutako denbora, Fakultatean esleitutako barne-tutorearekin egindako jarraipen-bilerak, azterlan pertsonala eta jardueraren azken txostena osatzea (*Azken Memoria* -barne-tutoreari zuzendutakoa).

2.3 Non?

Kanpoko praktika akademikoak egiteko, Unibertsitateak *Hezkuntza Lanhaketarako Hitzarmenak* sinatuko ditu erakunde laguntzaileekin. Hitzarmenetan zehaztuko da ikaslearen, erakunde laguntzailearen eta Unibertsitatearen arteko harremanak arautuko dituen esparrua. Bereziki sustatuko da erakunde laguntzaileetarako irisgarritasuna, ikasle ezinduek ere praktikak egin ahal izan ditzaten. Xede horri begira, behar diren giza baliabide eta baliabide material eta teknologiko guztiak bideratuko dira aukera-berdintasuna berma dadin.

Erakunde laguntzaileak, hain zuzen, erakunde publiko zein pribatuak (enpresak, elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak, kabinete profesionalak, etab.) izan daitezke, psikologo tituludunak dituztenak eta psikologiarekin eta osasunaren hedapenarekin lotutako jarduerak gauzatzen dituztenak. Zentro horietako bakoitzean plaza bat edo gehiago eskaini ahal izango dituzte. Plazen ezaugarriak (kokalekua, jardunbide-eremua, ikasleak gauzatu behar dituen egitekoak, praktika-aldia, ordutegia, baldintzak, gomendioak, etab.), bestalde, *Kanpoko curriculum-praktiken plazen katalogoan* daude bilduta, izena eman aurretik ikasturte akademiko bakoitzean jakinaraziko dena eta ikasleak Fakultateko web-orrian kontsultatu ahal izango duena.

Praktiken antolakuntzan eta garapenean bereziki hartuko da kontuan ikasleek praktika horiek egiterakoan ahalegin ekonomiko txikiena egin behar izatea.

2.4 Lan-ezaugarririk gabe

Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza-izaera dela eta, haien gauzatze-prozesuan inolaz ere ezingo dira lan-harreman bati dagozkion betebeharrak ondorioztatu, eta haren edukian inolaz ere ez da lanpostu bati dagozkion betebeharrak ordezka litzakeen egitekorik onartuko. Ordainsaririk ere ez dute jasoko, nahiz eta praktikak egiten dituzten zentroak, borondatez, laguntza ekonomikoren bat eman diezaiokeen ikasleari.

Era berean, ikasketak bukatutakoan ikaslea erakunde laguntzaileko langile bilakatzen bada, praktketan eginiko denbora ez da antzinatasunari begira aintzat hartu ahal izango eta langile berria ez da horregatik proba-epea igaro beharrik gabe geratuko, non eta aplikatu beharreko lan-hitzarmenean ez bada horrelakorik zehazten.

2.5 Praktikak egiteko eremuak

Psikologia Fakultateak praktikak egiteko plaza-eskaintza egonkorra dauka, honako arlo hauek barne hartzen dituena:

- Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia
- Esku-hartze Psikosoziala
- Hezkuntza Psikologia
- Lanaren, Giza Baliabideen eta Erakundeen Psikologia
- Psikogerontologia
- Kirolaren Psikologia
- Garapenerako Lankidetzak
- Ikerketa, Fakultateko ikerketa taldeetan*

*Praktika horiek autokudeaketa prozedura baten bidez egingo dira, ikasleek proposatuta (hau da, interesa duten ikasleak fakultateko irakasleekin jarriko dira harremanetan), eta onartuko egingo dira baldin eta [UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoen Arautegiak](#) eskatzen dituen baldintzak betetzen badituzte. Kasu horretan, irakaslea arduratuko da praktiketako plaza izapidetzeaz.

2.6 Ikasleak zentru berri baten bilaketa egiten duenean (Esleipen Zuzena)

Ikasleren batek praktiken plazen katalogotik kanpo dagoen zentro berri bat bilatu nahiko balu, zentro berriaren eta instruktorearen hainbat datu bildu beharko ditu.

Zentro berri batekiko hitzarmena baliozkotzat joko da, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- Zentroa gure katalogoan azken 2 ikasturteetan EGON EZ BADA.
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko erakunde publiko bat EZ bada.
- Instruktorea psikologoa edo ikastetxeen kasuan orientatzailea bada (salbuespenak egon daitezke, Practicum Batzordeak aztertu eta onartu beharrekoak).
- Egin beharreko funtzioak Psikologiarekin lotuta badaude.

Eskaera nola egin

1. Hitzarmen berri bat egiteko [dokumentu honetan](#) agertzen diren datuak bildu eta orri horretan aurkituko duzun formularioa bete.
2. Formularioa bete ondoren, inprimatu edo gorde ezazu sortzen den pdf dokumentua eskaeraren gordekin gisa.
3. Bidalitako datuak Kanpoko Praktiken dekanordeak erkatuko ditu. Dena ondo badago, UPV/EHUren eta aukeratu duzun zentroaren arteko hitzarmen berria egingo da eta zuzenean esleituko zaizu plaza, eta praktikak hasi arte ez duzu bestelako izapiderik egin beharko.

2.7 Practicumaren sarrera-irakasgaiak

Ikasketa-planak Practicumaren lau sarrera-irakasgai ditu, bakoitza 6 ECTSkoa. Horien helburua, zehazki, ikaslea kanpoko praktikak egiteko prestatzea da. Honako hauek dira, hain justu, irakasgaiak:

1. Psikologia Klinikoaren eta Osasun Psikologiaren Practicumerako Sarrera
2. Esku-hartze Psikosozialeko Practicumerako Sarrera
3. Hezkuntza Psikologiaren Practicumerako Sarrera
4. Lanaren, Giza Baliabideen eta Erakundeen Psikologiaren Practicumerako Sarrera

Ikasleak katalogoko fitxetan ikusi ahal izango du zentro bakoitzak zein Praktikumari sarrera egitea gomendatzen duen.

Ikasleak, era berean, bere prestakuntzaren erantzulea izan beharko du; betiere, praktiken aurretik edo horiek egin bitartean, katalogoan jaso daitezkeen argibideei eta praktiketako instruktoarak eta barne-tutoreak adierazitakoari erreparatuta.

2.8 Asegurua

Ikasketa ofizial batean matrikulatuta dauden eta 28 urtetik behera dituzten ikasleek eskola aseguru bat izango dute, espainiarrak izan edo bizileku baimena duten atzerritarrak edo europarrak izan.

Era berean, UPV/EHUK istripuetako eta laguntza sanitarioko **EHU Ikasle Asegurua** du kontratatuta, eta UPV/EHUn matrikulatutako ikasle guztiak estaltzen ditu, estatuko lurraldean.

Atzerrian kanpoko praktikak egiteko, **IBILI** poliza edo gutxienez horren estaldura bera duen poliza bat izenpetu beharko da. Harrera herrialdearen arabera, gizarte erantzukizuneko

polizaren estaldura egiaztatu beharko da, salbuespen batzuk ez baitaude estalita (AEB eta Kanada).

3. Plazen kudeaketa eta esleipena

Ikaslegoak, plazen esleipenaren aurretik, web orrian eskuragarri izango den plazen katalogoa aztertu beharko du. Katalogo hau, zentruet betetako fitxez osatua dago, non zentruan ikasleak izango dituen zereginak eta betebeharreko baldintzak zein gomendioak zehaztuko diren besteak beste.

Ikaslegoak, uztailan Praktikumari sarrera eta Kanpo praktikak irakasgaiak matrikulatuko ditu, baina ez du azarorarte praktiketako plaza aukeratuko; hau preinskripzio bitartez egingo da. Preinskripzioak, ikasleek GAUR plataforman euren aukeren priorizazioa markatzea eskatzen du; ondoren euren listan libre dagoen lehen zentroa esleituko zaie, batazbesteko nota eta gainditutako kreditu kopuruak markatzen dien ordenaren arabera.

Nolanahi ere, praktikak hautatzerakoan eta esleitzerakoan, lehenetsia izango dute ikasle ezinduek ([Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua](#) erregistratuak), irisgarritasun unibertsalerako neurri guztiak egiaztatzen dituzten enpresetara joateko aukera izan dezaten. Irisgarritasunerako neurri horien artekoak ditugu garraioari dagozkionak, lekualdatzeei begira, eta instalazioetan sartzeko erraztasunak.

Ikasleak enpresa, instituzio edo erakunde publiko zein pribaturen batekin kontratu-harremana badauka, ezinezkoa izango zaio bertan praktikak egitea, non eta ez duten halaxe espresuki baimentzen Akademia Antolakuntzako errektoreordeak xedatutako organoek.

4. Praktiken garapena eta ebaluazioa: tutoretza, ikasleak gauzatu beharreko txostenak eta memoriak eta kalifikazioa

4.1 Tutoretza

Ikasleak praktikak egiten dituen erakundean parte hartu eta kolaboratuko du. Jarduera hori behar bezala gauzatzeko, bi funtsezko irudi daude:

- Psikologia Fakultatetik, **barne-tutorea** den irakaslea. Ikasle bakoitzak irakasle-tutore bat izango du, Fakultateko irakaslea edo ikertzailea izango dena, kanpoko instruktorearekin praktikak koordinatuko dituen eta horien garapen zuzena gainbegiratu duena, nola ikaslearen ikuspegitik, hala praktiketako zentroarenetik, sortu litekeen zeinahi arazo konponduta, eta gainera, ikaslearen azken ebaluazioa egingo duena.

- Praktiketako zentroaren aldetik, **praktiketako instruktorea**. Hark egingo dio harrera ikasleari, eta ikasleak praktikak egin bitartean, haren jarduera antolatu eta gainbegiratuko du. Erakunde laguntzaileak izendatuko duen instruktorea erakunde horri berari loturiko pertsona izango da eta, eskarmentu profesionalaz gainera, tutoretza modu eraginkorrean bideratzeko behar diren ezagutzen jabe izango da. Instruktorea eta Unibertsitatearen tutoretza-lanak beteko dituen pertsona ez dira bat eta bera izango.

Ikasle bakoitzak definituak izan beharko ditu bere hezkuntza-helburuak eta praktika-aldian gauzatu beharreko jarduerak. Horiek guztiak tutorearen eta praktiken instruktorearen artean finkatuko da, eskuratu nahi diren gaitasunak kontuan hartuz.

4.2 Txostenak eta memoriak

Praktika-aldia amaitutakoan, ikasleak **Praktika amaierako memoria** aurkeztu beharko dio bere **barne-tutoreari**, horretarako finkatutako argibideei eta formatuari jarraitua (ikusi Praktiken azken memoria egiteko orientabideak dokumentua).

Era berean, praktikaldia amaitu ostean, [ikaslegoaren praktiken ebaluazioa formularioa](#) bete beharko du ikasleak.

Ikasleak praktiken tarteko jarraipen-txosten bat prestatu beharko du, praktika-epearen erdia igarotakoan, tutoreak hala egiteko eskatzen badio. Prestakuntza-proiektuaren garapenaren balorazioa egingo du ikasleak txosten horretan.

4.3 Praktiken ebaluazioa eta kalifikazioa

Nola barne-tutoreak, hala praktiketako instruktoreak, ikaslearen etengabeko ebaluazioa egingo dute. Praktika-aldia amaitzen denean, barne-tutoreak kalifikazioa emango dio ikasleari, honako hauek kontuan izanda:

1. **Praktiketako instruktorearen ebaluazioa**, barne-tutoreari aurkeztu beharreko txostenean jasota geratuko dena. Azken horrek txosten horren kopia aurkeztuko dio ikasleari, behin kalifikatu ondoren.
Txosten horretan jasotako ebaluazioaz gainera, praktiketako instruktoreak, bestelako bide batzuk baliatuta, isilpean landu beharreko ikasleari buruzko bestelako balioespen batzuk bidali ahal izango dizkio barne-tutoreari.
2. Ikasleak egindako praktiken jarraipenean eskuratutako informazioa eta tarteko jarraipen-txostenean eskuratutakoa, hura ere eskatuz gero.

3. Praktika-aldia amaitutakoan **ikasleak aurkeztutako memoria.**

Irakasgaiaren azken nota, hain zuzen, praktiketako instruktorearen kalifikazioaren % 70 eta barne-tutorearen kalifikazioaren % 30 batuta lortuko da. Ikasleek Ohorezko Matrikula eskuratu ahal izango dute, barne-tutoreak hala proposatzen duenean, eta praktiketako instruktorearen Azken Balioespenean Bikain badaukate item guztietan. Praktika Batzordeak, beraz, egindako proposamen guztiak aztertuko ditu eta hark esleituko ditu Ohorezko Matrikulak ikasleen artean.

5. Eskubideak eta betebeharrak

5.1 Praktikak egiten ari diren ikasleak

Kanpoko praktikak egitean, ikasleak honako eskubide hauek izango ditu:

- a) Praktikek irauten duten bitartean, unibertsitateko irakasle baten eta praktika egiten ari den enpresa, instituzio edo erakundean lanean ari den profesional baten tutoretzarako eskubidea.
- b) Ebaluaziorako eskubidea, unibertsitateak zehazturiko irizpideen arabera.
- c) Praktiketako erakunde laguntzaileak egindako txostena eskuratzeko eskubidea. Bertan, berariaz aipatuko dira egindako jarduera, iraupena eta, hala badagokio, errendimendua.
- d) Hala zehaztu den kasuetan, erakunde laguntzaileak ikasketetarako laguntza gisa finkatutako ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea.
- e) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, legeriak arlo horretan zehaztutako baldintzetan, ikasleak lagapen edo transmisio dokumentua sinatu duenean izan ezik, dagozkion aplikazio informatikoetan dauden ereduak erabiltzeko aukera edukita.
- f) Segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako araudiaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea. Informazio hori erakunde laguntzaileak eman beharko du.
- g) Bere jarduera akademikoa, prestakuntza zereginak eta ordezkaritza nahiz partaidetza betebeharrak betetzeko eskubidea, aldez aurretik erakunde laguntzaileari jakinarazita.
- h) Ezgaitasunak dituzten ikasleen kasuetan, praktikak besteen baldintza berberetan egiteko eta tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko eskubidea.
- i) Ezgaitasunak dituzten ikasleen kasuan, praktikak ezgaitasunari lotutako edo hortik eratorritako jardueretara eta egoera pertsonalera egokitzeko eskubidea.
- j) Azterketak egiteko praktiketara ez joateko eskubidea, hiru egun lehenago tutoreari eta instruktoreari horren justifikazioa emanda. Arrazoi akademikoengatik edo

beste era bateko arrazoiengatik joan ezean, ahalik eta lasterren emango die horren berri tutoreari eta instruktoreari, eta tutorearen baimena eskuratu beharko du.

- k) Indarrean den araudian eta unibertsitateak eta/edo erakunde laguntzaileak izenpetutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan aurreikusitako beste eskubide guztiak.

Era berean, kanpoko praktika akademikoak egin bitartean, ikasleek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Kanpoko praktiken arloan indarrean dagoen arautegia, unibertsitateak zehaztutakoa, betetzea.
- b) Praktiken prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, erakunde laguntzaileak izendatutako instruktorearen jarraibideak kontuan izanik eta unibertsitateko tutorearen gainbegiradapean.
- c) Praktikak egin bitartean unibertsitateko tutorearekin harremana izatea, eta praktikarekin zerikusia duen edozein gorabehera hari jakinaraztea, bai eta eskatzen zaizkion agiriak, txostenak eta azken memoria entregatzea ere.
- d) Erakunde laguntzailean hitzartutako egunean hastea, hezkuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea, praktikaren arabera jantziak eta higiena mantentzea, eta erakundearen funtzionamendu arauak eta segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako arauak errespetatzea.
- e) Praktiketako pertsonen eta instalazioen segurtasuna bermatuko duen jarrera erakustea.
- f) Prestakuntza proiektua garatzea eta erakunde laguntzailearekin hitzartutako jarduerak egoki betetzea, proiektuan ezarritako lan ildoan arabera.
- g) Praktika motaren arabera arautegi honen 32. eta 40. artikuluetan aurreikusitako agiriak prestatzea eta entregatzea.
- h) Erakunde laguntzailearen barne informazioari lotutako konfidentzialtasuna gordetzea eta sekretu profesionala gordetzea; hortaz, praktikak egin aurretik, egin bitartean eta behin amaituta ezagutzen edo eskuratzen dituen datuak ez dizkie hirugarren pertsoneri komunikatuko eta jakinaraziko.
- i) Baliabide informatikoak erabiltzeko proposatutako jarraibideak eta segurtasun neurriak betetzea, informazioa eskuratzean eta agiriak babestean, baita instalazioen segurtasunean ere.
- j) Erakunde laguntzailearen politikarekiko errespetuzko jarrera izatea une oro, partaide den unibertsitatearen izen ona zainduta.
- k) Indarrean den araudian eta unibertsitateak erakunde laguntzailearekin sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan aurreikusitako beste edozein betebeharrak.

Aurreko atalean aipatu diren betebeharrak bete ezean, praktikak bertan behera utzi ahal izango dira. Horretarako, UPV/EHUK edo erakunde laguntzaileak beste aldeari arau hauste horren berri jakinaraziko dio, eta aldeen artean izenpeturiko lankidetzaren hitzarmenean aurreikusi bezala ebatzi beharko da auzia.

Betebeharrak betetzen ez badira edo praktikak justifikaziorik gabe uzten badira, ikasleak zigortuko da, praktika berriak eskatzen dituenean esleitzerakoan lehentasunerako aukera galduta da.

5.2 Praktiketako erakunde laguntzaileko instruktorea

Honako eskubide hauek izango ditu erakunde laguntzaileko instruktoreak:

- a) Bere laguntzaile jarduera aitortua izateko eskubidea, artikuluko honen 3. zenbakian jasotako baldintzetan, honako hau diolarik: Dekanotzak edo Zuzendaritzak **Venia Docendia** aitortuko die erakunde laguntzailearen instruktoreei, eta dagokion ziurtagiriarekin egiaztatuko da, Dekanoak edo Zuzendariak sinatuko duena.
- b) Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiaren berri izateko eskubidea, baita prestakuntza proiektua eta hura garatzeko baldintzak ezagutzeko ere.
- c) Unibertsitatean sartzeko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa eta babesa eskuratzeko.
- d) Etengabeko prestakuntzarako baliagarriak izan daitezkeen unibertsitate-instalazio eta -jardueretarako sarbidea izatea (liburutegia, mintegiak, etab.). Praktiketako instruktoreek onura horiei buruzko informazio zehatzagoa jasoko dute Kanpoko Praktika eta Graduondoo Dekanordetzaren bitartez.

Praktiketako instruktoreen lankidetzaren lanak ez du ordainsaririk izango.

Era berean, betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Ikasleari harrera egin, eta garatu beharreko jarduera antolatu beharko du, prestakuntza proiektuan zehaztutakoaren arabera.
- b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratu, eta praktikaren garapena orientatu eta kontrolatu beharko ditu, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzaren konpromisoan oinarritutako harremanean.
- c) Ikasleari erakundearen antolakuntza eta funtzionamenduaren berri eman beharko dio, baita intereseko araudia ezagutarazi ere; batez ere, segurtasunaren eta lan arriskuen arlokoa.

- d) Hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean zehaztutako jardueren garapena unibertsitateko tutorearekin koordinatu beharko du, eta, hala badagokio, praktikaren garapen egokiari begira prestakuntza proiektuan beharrezkotzat jo daitezkeen aldaketak egin. Era berean, bitarte horretan gerta daitezkeen gorabeherak jakinarazi eta soluziobidean jarri beharko ditu, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatuko ditu.
- e) Ebaluazio proiektuan parte hartuko du, arautegi honen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta horretarako, praktikak amaitzean amaierako txostena egin, eta unibertsitateko tutoreari igorri beharko dio. Instruktoarek ikasleak egindako ordu kopuruen berri eman beharko du, eta, besteak beste, dagokion prestakuntza proiektuan aurreikusitako gaitasun orokorrak edo espezifikoak baloratu ahal izango ditu. Amaierako txostena unibertsitateak ezarritako ereduaren arabera egin daiteke, eta, desberdina izanez gero, lehendik tutorearekin adostutakoaren arabera izango da.
- f) Ikasleari praktikak egin ahal izateko behar duen prestakuntza osagarria eman beharko dio.
- g) Ikasleari praktikak egin ahal izateko ezinbestekoak diren bitarteko materialak eman beharko dizkio.
- h) Ikasleari erraztasunak eman eta bultzatu berrikuntza, hobekuntza eta ekintzaitza proposamenak egin ditzan.
- i) Unibertsitateko tutoreari erakunderako sarbidea erraztuko dio, bere eginkizunari dagozkion helburuak bete ditzan.
- j) Instruktoare lanaren bidez ikasleari buruz eskuratzen duen edozein informazio isilpean gorde beharko du.
- k) Erakundearen ari den bitartean ikasleari beharrezkoa den laguntza eman beharko dio, eginkizun dituen jardueretan suerta daitezkeen lan izaerako arazoak konpontzeari begira.
- l) Instalazio eta baliabideen erabilera bermatuko du, praktikak egiteko, eta zehaztuko du, halaber, hartu ahal izango dituen ikasleen kopurua, eskura dauden baliabideen eta lortu nahi diren helburuen arabera.

5.3 Unibertsitateko tutorea

Honako betebeharrak hauek izango ditu Unibertsitateko tutoreak:

- a) Bere jarduera akademikoaren aitortza eraginkorra jasotzeko eskubidea, unibertsitateak, dagokion unibertsitate araudian aurreikusitakoari jarraiki, ezarriko dituen baldintzetan.
- b) Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegia ezagutzeko eskubidea, baita prestakuntza proiektua eta tutorea izango den ikasleak egingo duen egonaldiaren baldintzak ere.
- c) Erakunde laguntzailean sarbidea izatea, bere eginkizunak bete ahal izateko.

Era berean, honako betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Prestakuntza proiektua era egokian gauzatzen dela zaindu beharko du, eta praktiketako ordutegia ikaslearen betebeharrak akademikoarekin, prestakuntza zereginekin eta ordezkaritza nahiz partaidetza betebeharrekin bateragarria dela bermatuko du.
- b) Praktiken jarraipen eraginkorra egin beharko du. Horretarako, erakunde laguntzaileko instruktorearekin koordinatuko da, eta, halakorik bada, jarraipen txostenak aztertuta.
- c) Prestakuntza proiektuan gerta daitezkeen aldaketak baimenduko ditu.
- d) Tutoretzapeko ikaslearen praktiken ebaluazio prozesua gauzatu beharko du, arautegi honen 14. artikulua xedatutakoaren arabera.
- e) Tutore lanaren bidez eskuratutako zeinahi informazio isilpean gorde beharko du.
- f) Gerta daitezkeen gorabeherak jakinarazi beharko dizkio PPAri edo, ikastegiak hala ezartzen duenean, tituluko praktiken arduradunari.
- g) Ezgaitasunak dituzten ikasleek praktikak aukera berdintasunean, bereizkeriarik jasan gabe eta irisgarritasun unibertsala xedatzen duen printzipioaren arabera egiteko, laguntzarako behar dituzten baliabideak egoki bideratu direla gainbegiratu beharko du, eta, hala behar bada, halaxe egin dadila eskatuko du.

UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Lanaldi Akademikoari buruzko Planarekin bat eginda, nahitaezko kanpoko praktiken tutoretza-lanak egiteak kredituak emango ditu, honako formula honen arabera: $Kreditu\ kopurua = 0,02 \times K \times A$. Bertan, K, hain zuzen, nahitaezko kanpoko praktikei dagokien eta ikasketa-planean jasotako kreditu kopurua da (12); eta A, zaindutako ikasle-kopurua.

Jarduera honengatik, ikasturte akademiko bakoitzean, 6 kreditu esleituko zaizkio gehienez Irakasle eta Ikertzaile bakoitzari. Praktikak gauzatu diren ikasturtean bertan egingo da esleipena, kalifikazioa zeinahi delarik ere.

6. GAUR plataforma

Ikasleek, praktiketako zentroetako instruktoreek eta Unibertsitateko tutoreek GAUR Plataformarako sarbidea izango dute. Bertan, praktiken baldintzei buruzko datuak eta euren identifikazio eta kokalekuarekin lotutako datuak izango dituzte eskura.

7. Web orrian erabilgarri dauden dokumentu eta formularioak

Ikasleentzako, erakunde laguntzaileentzako eta irakasleentzako praktikekin zerikusia duten dokumentuak eta formularioak beren atalean daude banatuta, praktiken webgunean.

8. Harremanetarako datuak eta informazioa

Kanpoko praktikei buruzko edozer gauzatarako, jarri harremanetan honako hauekin:

- **Helbide elektronikoa:** psikologia.fak.praktikak-gestioa@ehu.es
- **Telefonoak:** 943.018.297 / 943.018.298 / 943.018.299 / 943.015637 / 943.018321

8.1 Egiaztapen-zerrenda / barne-tutoreak

- Behin Kanpoko Praktika eta Kalitateko Dekanordetzako jakinarazpena jaso ondoren, tutoretza-lana egingo dien ikasleen eta bakoitzaren zentroaren eta praktiketako instruktorearen zerrendak aztertu beharko ditu GAUREn; baita praktikak noiz egingo diren ere.
- Praktiketako instruktore bakoitzarekin harremanetan jarri, honako hauetarako:
 - Bere burua aurkezteko, erreferentziazko datuak emateko (izen-abizenak, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa) eta bere egitekoak azaltzeko.
 - Ikastegiko web-orrira bideratzea, bertan aurkituko baitu praktikak gauatzeko beharrezko informazio eta dokumentazio guztia.
 - Ikaslearen Balioespenerako Azken Txostenari buruzko informazioa ematea.
 - Ikasle bakoitzak gauzatuko duen prestakuntza-programa definitzea: helburuak eta ekintzak.
- Instrukture aldaketen berri ematea ikastegiko teknikariari psikologia.fak.praktikak-gestioa@ehu.es
- Instrukture bakoitzarekin erabakitzea zein izango den ikasleak zentroarekin izango duen lehen harremana, praktikak hasi ahal izateko.
- Ikaslearekin elkarrizketa izatea, informazioa helarazteko eta praktiken hasiera prestatzeko.
- Praktikak dagokien egunean eta aurreikusitako prozeduraren bitartez hasi direla ziurtatzea.
- Ikaslearekin eta kanpoko instruktorearekin gutxienez bilera bat izatea; ahal izanez gero, praktiken erdialdean, praktikei jarraipena egiteko. Bilera hori egokien irritzitako moduan egin ahal izango da (aurrez aurre, telefonoz edo helbide elektronikoz).
- Praktikak amaitu baino gutxienez bi aste lehenago, praktiketako instruktoreari ikaslearen balioespenerako azken txostenari buruzkoak gogoraraztea, eta txostena non dagoen (web-orrari) zehaztea.
- Praktika-aldia amaitu ondoren edo amaitzean dagoenean, ikaslearekin balioespen- eta itxiera-elkarrizketa bat izatea (aurrez aurrekoa hobesten da).
- Praktiketako instruktorearekin bilera bat izatea, elkarren artean ikasle bakoitzaren banakako azken balioespenera osatzeko. Eskerrak ematea eta agurra.
- Ikaslea kalifikatzea, Azken Txostena eta praktikak egiaztatzeke ziurtagiria osatzea, eta notak praktiken koordinatzaileari jakinaraztea ekaineko lehen astean.

- Praktiken dekanordeari jakinaraztea praktika-zentroa ez dela egokia praktiketako gaitasunak eskuratzeko.

8.2 Egiatzapen-zerrenda / erakunde laguntzaileetako instruktoreak

- Praktika-aldia hasi aurretik:
 - Barne-tutorearekin batera, ikasle bakoitzarekin gauzatu beharreko prestakuntza-programa definitzea.
 - Barne-tutorearekin erabakitzea zein izango den ikasleak zentroarekin izango duen lehen harremana, praktikak hasi ahal izateko.
- Beharrezkoa izanez gero, ikaslearen praktiken Azken Memoria aztertzea.
- Ikaslearen ebaluazioarko Azken Txostena betetzea, eta barne-tutoreari bidaltzea.
- Kanpo-praktiken kudeaketan hobetzeko modukoak iruditzen zaizkion alderdiak Praktiketako Dekanordeari jakinaraztea.